dientea hastea, Laudio/Llodio jartzeko. Erabaki hori hartu ondoren, bai Euskaltzaindiak bai Arabako Foru Aldundiak txostena ere eskaini dute

Izena aldatzeko prozeduraren gaineko abenduaren 12ko 271/1983 Dekretuan ezarritakoa betez, iragarki honen bidez jakinarazten da erabaki hori jendearen eskura eta jendaurreko erakusketan dagoela, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko hilabeteko epean. Espedientea Idazkaritza Orokorrean dago edozein interesatuk kontsultatu ahal izateko. Kontuan izanik iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitara eman behar denez, aipatu den epe hori hasiko da zenbatzen azkeneko iragarkia argitaratuko den hurrengo egunetik hasita.

Laudio, 2004ko irailaren 10a, Alkateak, JON KARLA MENOIO LLANO.

## NAVARIDAS

**5.758**

**Kanpamenduak eta kanpaldiak arautzen dituen udal ordenantza.**

AURREKARIAK

Jende ugari etortzen da Navaridasera mahats-bilketarako eta aldi baterako beste nekazaritza jarduera batzuetarako.

Navaridasen kokapen geografikoa –Laguardiatik 4 kilometrora, eta Arabako Errioxako mahats-bilketaren eremutik oso hurbil– sasoikako langileentzako asentamendu egokia bilakatu da Errioxako JDKren eremuko mahats-bilketa kanpainarako, eta horren neurriak ez du proportziorik gordetzen herrian sortzen den lanarekin ez eta bertako herritar kopuruarekin ere.

Beraz, demografia fenomeno honek zenbait behar sortzen ditu:

- Sasoikako langileen seme-alabak eskolatzeari buruzkoak; horiek Hezkuntza Sailari dagozkio.

- Osasun-laguntzari buruzkoak; horiek Osasun Sailari dagozkio.

- Pertsonen segurtasunari eta askatasunari buruzkoak; horiek Herrizaingo Sailari dagozkio.

Administrazio honi ez dagokio behar horiek asetzea.

Hori dela eta, administrazio honen hausnarketa eta irizpideak bat datoz Arartekoak 2000. urteko txosten berezian adierazitakoarekin:

- Egokia litzateke sasoikako langileen kontratazioa jatorrizko herrietan egitea.

- Egokiena, bestalde, seme-alabak jatorrizko herrietan atenditzea litzateke, horretarako propio egindako azpiegiturekin: sasoikako langileen familientzako haurtzaindegiak eta barnetegiak.

- Nekazariak edo sasoikako langilea kontratatzen duen enpresak du langileari bizitoki duin bat bilatzeko betebeharra.

Onartu nahi den arautegiak konponbidea eman nahi dio sasoikako nekazarien fenomenoak sortzen dituen arazoetako bati, eta kanpaldiak antolatzen dituztenei gutxieneko osasun eta higiene baldintzak exijitu.

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen legearen 49. eta 84. artikuluek eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 55. artikuluak ematen dizkion ahalmenak baliatuz, Udal honek udalerriaren mugen barruan antolatzen diren kanpamenduak eta kanpaldiak arautzen ditu, jarraian transkribatzen den ordenantzaren bidez.

1. artikulua.- Ezin izango da antolatu kanpamendurik edo kanpaldirik honako lur hauetan:

1. Hiri-lurzorua edo lurzoru urbanizagarria, Ordezko Arauetan agertzen denaren arabera.

2. Ur-hartuneak dauden lekuetatik berrehun metro baino gutxiagoko erradioan.

3. Industria jarduerak dituzten pabiloi edo instalazioetatik berrehun metro baino gutxiagoko erradioan.

4. Udalaren edozein lurzorutan, jabetza publikokoa dela zein ondare-ondasuna dela.

2. artikulua.- Kanpamendua jabetza pribatuko finka batean jartzen bada, honakoa izango da kanpaldiaren arduraduna:

Municipio, Llodio, que pasaría a denominarse Laudio/Llodio. Tras dicha aprobación han sido emitidos informes tanto por Euskaltzaindia como por la Diputación Foral de Álava.

En cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 271/1983 de 12 de diciembre sobre procedimiento para el cambio de denominación, se procede a la exposición pública del acuerdo mediante el presente anuncio para la presentación de reclamaciones y observaciones por el plazo de un mes, encontrándose el expediente en Secretaría General a disposición de cualquier interesado para su consulta. Considerando que el presente anuncio será objeto de publicación tanto en el Boletín Oficial del País Vasco como en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, el citado plazo comenzará a computarse a partir del día siguiente al de la publicación que se lleve a cabo en último lugar.

Llodio, a 10 de septiembre de 2004.– El Alcalde, JON KARLA MENOIO LLANO.

## NAVARIDAS

**5.758**

**Ordenanza Municipal de Campamentos y Acampadas.**

ANTECEDENTES

Gran número de personas acuden a Navaridas con motivo de la campaña de vendimia y otras actividades agrícolas temporales.

La ubicación geográfica de Navaridas, a 4 Km de Laguardia y con una relativa centralidad respecto al ámbito de la vendimia que abarca a la Rioja Alavesa, supone un asentamiento de temporeros durante toda la campaña de vendimia en el ámbito de la DOC Rioja y de dimensión no proporcionada en relación con la oferta de trabajo generada en el municipio y con la población del mismo.

Este fenómeno demográfico genera determinadas necesidades:

- Sobre escolarización de hijos e hijas de temporeros, que corresponde atender al Departamento de Educación.

- Sobre asistencia sanitaria, que corresponde atender al Departamento de Sanidad.

- Sobre seguridad y libertad de las personas, que corresponde atender al Departamento de Interior.

No corresponde a esta administración la satisfacción de las necesidades expuestas.

La reflexión y criterio de esta administración coinciden con lo expresado por el Arateko en su informe extraordinario del año 2000:

- Sería deseable que la contratación de trabajadores temporeros se realice en origen.

- Lo ideal seria que los hijos permanecieran atendidos en origen con infraestructuras creadas al efecto: guarderías e internados para hijos de familias temporeras.

- Es el agricultor o la empresa contratante quien tiene la obligación de facilitar a sus trabajadores temporeros un alojamiento en condiciones dignas.

La regulación que se pretende aprobar busca dar una solución a uno de los múltiples aspectos del fenómeno del temporerismo agrícola y exigir a los promotores de las acampadas el cumplimiento de las condiciones higiénico-sanitarias mínimas.

En uso de las facultades concedidas por los artículos 49 y 84 de la Ley Reguladora de la Bases de Régimen Local y el articulo 55 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, se regulan por este Ayuntamiento y mediante la ordenanza que se transcribe los campamentos y las acampadas en el territorio de su municipio.

Articulo 1.- No podrán situarse campamentos o acampadas en los terrenos siguientes:

1. Suelo urbano o apto para urbanizar, de acuerdo con la clasificación de las NN.SS.

2. En un radio inferior a doscientos metros de tomas de captación de aguas.

3. En un radio inferior a doscientos metros de pabellones o instalaciones que acojan actividades industriales.

4. En cualquier terreno de propiedad municipal, sea de dominio público o bien patrimonial.

Articulo 2.- En las acampadas o campamentos en finca de propiedad privada se presume promotor de la acampada:

- Lurzatiaren jabea, administrazioari idatziz adierazten ez badio kanpaldia ez dela izan baimendutakoa, eta udalari jendea ateratzeko laguntza eskatzen ez badio.

- Pabiloiaren edo kanpamenduarekin funtzionalki lotuta dagoen beste eraikin baten jabea.

- Kanpamendua edateko urez hornituta badago, edateko ur horren hartunearen titularra.

- Kanpamendua argindarrez hornituta badago, argindar horren hartunearen titularra.

3. artikulua.- Kanpaldian sustatzen dituztenei dagokie osasun eta higiene arauak betetzea, horrela xedatzen baitu martxoaren 16ko 41/1981 Dekretuak kanpamenduei dagokienez.

Pertsona bat kanpaldiaren sustatzailea dela uste bada, uste hori kontrakoa adierazten duen idazki baten bidez deusezta daiteke, eta udalaren laguntza eskatuz, jendea handik ateratzeko. Baimen horrek ez du kentzen honako betebehar hau: jabeak behar bezalako osasun eta higiene baldintzetan mantendu behar du bere lurzatia.

4. artikulua.- Karabanak, furgonetak edo beste ibilgailu batzuk, zein kanpadenda edo antzekoak kokatu ezin diren lekuetan jarrita badaude, kendu egingo dira handik, eta, horretarako hirurogeita hamabi (72) ordu izango dira gehienez.

Administrazio honek kanpamenduaren sustatzaileari adieraziko dio jendea handik ateratzeko eta lurzatia garbitzeko. Behar izanez gero, indar publikoari eskatuko dio laguntza, Ertzaintzari hain zuzen.

5. artikulua.- Ordenantza honen aurka egiten den orok ondorio hauek izango ditu:

a) Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu hautsitako araua berrezartzeko eta lehenagoko egoerara bueltatzeko. Kasu horretan, administrazioak hartzen dituen neurriak horiek ordaintzeko betebeharra duenaren kontura egingo ditu. Ogasun publikoaren kontura egindako gastuak eta kalte-ordainak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 97. eta 98. artikuluetan ezartzen den moduan ordainduko dira.

b) Arduradunak zigortu egingo dira, aurretik zigor-espedientea izapidetuta. Hala ere, ez dira baztertzen Zigor Kodean jasotako bestelako erantzukizunak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Toki Erregimenaren Oinarrien Legearen 70.2 artikuluan jasotzen den epea pasatu ondoren izango du indarra, behin betiko onarpena jaso ondoren eta iragarki-taulan eta Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondoren, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Navaridas, 2004ko irailaen.– ALKATEA.

- Al propietario de la parcela, salvo que comunique por escrito a esta administración que la acampada no ha sido autorizada y solicite la colaboración municipal para su desalojo.

- Al propietario del pabellón u otra edificación que resulte conectado funcionalmente con el campamento.

- Si la acampada cuenta con suministro de agua potable, al titular de la acometida desde la que deriva el agua potable.

- Si la acampada cuenta con suministro de energía eléctrica, al titular de la acometida desde la que se tome la energía eléctrica.

Articulo 3.- Corresponde a los promotores de las acampadas el cumplimiento de las normas sanitarias y de higiene, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 41/1981, de 16 de marzo, sobre ordenación de campamentos.

La presunción de la condición de promotor de la acampada puede destruirse con la comunicación escrita en sentido contrario y la solicitud de colaboración municipal para el desalojo. La solicitud indicada no exime al propietario de la obligación de mantener su parcela en las debidas condiciones de limpieza e higiénico-sanitarias.

Articulo 4.- Los asentamientos de caravanas, furgonetas u otros vehículos, tiendas de campaña o cualquier otro medio que generen una acampada en terrenos donde no pueden situarse serán desmantelados en plazo el máximo de 72 (setenta y dos) horas.

Esta administración comunicará al promotor del campamento que proceda al desalojo y posterior limpieza de la parcela. En su caso se solicitará el auxilio de la fuerza pública, Ertzaintza-Policía Autónoma Vasca.

Articulo 5.- Toda actuación que contradiga la presente ordenanza podrá dar lugar a:

a) La adopción por parte de esta administración de las medidas precisas para restablecer la norma infringida y la restauración de la realidad física alterada. En este supuesto, esta administración adoptará las medidas que corresponda a costa del obligado, el importe de los gastos, daños y perjuicios que se inflijan a la hacienda pública se exigirá conforme a lo dispuesto en los artículos 97 y 98 de la Ley de R.J.AA.PP y del P.A.C.

b) La imposición de sanciones a los responsables previa tramitación del expediente sancionador, sin perjuicio de las responsabilidades de orden penal en que se hubiera incluido.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza, una vez aprobada definitivamente y publicada íntegramente en el tablón municipal de anuncios y el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, entraré en vigor una vez transcurrido el plazo a que se refiere el articulo 70.2 de la ley de Bases del Régimen Local y permanecerá en vigor hasta su modificación o derogación expresa.

Navaridas, setiembre de 2004.– EL ALCALDE.

## OKONDO

**5.741**

### Iragarkia

6/2004 kreditua gaitzeagatik aurrekontua aldatzeko espedienteari hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espediente hori behin betiko onartzen da.

Udal honetako 6/2004 kreditua gaitzeagatik aurrekontua aldatzeko espedientea behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Okondo, 2004ko irailaren 13a.– Alkate-lehendakaria, ANDRÉS ALCALDE OLANO.

## OKONDO

**5.741**

### Anuncio

De conformidad con lo dispuesto en el articulo 15 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava , y no habiéndose formulado ninguna reclamación contra el acuerdo de aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria por habilitación de crédito número 6/2004, dicho expediente queda definitivamente aprobado.

Contra el presente acuerdo de aprobación definitiva del expediente de modificación presupuestaria por habilitación de crédito número 6/2004 de este Ayuntamiento, podrá interponerse directamente recurso contencioso- administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde la publicación de este anuncio.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Okondo, a 13 de septiembre de 2004.– El Alcalde-Presidente, ANDRÉS ALCALDE OLANO.

## AGURAIN

**5.923**

### Iragarkia

Aguraingo udalaren Gobernu Batzordeak, 2004ko uztailaren 29ko ohiko bilkuran, Ekialdea-1 Sektorea zatikatzeko eta normalizatzeko proiektuan zatikatzearen gainean dioena onartu zuen, eta sektore horretako funtsen normalizazioari hasierako onarpena eman zion.

## SALVATIERRA

**5.923**

### Anuncio

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Agurain en sesión ordinaria celebrada el día 29 de julio de 2004, aprobó lo correspondiente a la Parcelación del Proyecto de Parcelación y normalización del Sector Este-1 e inicialmente la Normalización de fincas de dicho sector.